

9.- GORKA ALVAREZ ARAMBURU

Irunen jaioa, 27 urte ditu.

UPV-EHUn Enpresa Zientzietan diplomatua da eta gaur egun Politika Zientziak eta Soziologia ikasten ari da UNEDen.

2008tik EAJ-PNV Euskal Taldeko Diputatuen laguntzailea da Diputatuen Kongresuan non Inmigrazioa eta Lana, Barne Saila, Justizia, Ezintasuna, Nekazaritza eta Arrantza, Osasuna eta Bide Segurtasuna bezalako gaiak jorratzen dituen eta arlo desberdinetan ezagutza handiak eta esperientzia ematen dion.

Irungo EGIko kidea da 18 urte zituenetik eta berriki erakunde horretako lehendakari izendatu dute.

Bere zaletasun handienetako bat Historia da orokorrean, eta bereziki Irungo historia atsegin du. Lagun eta ezagunekin gai desberdinen inguruan solasaldi luzeak izatea gustatzen zaio, baita irakurtzea eta inguratzen gaituen paisaia zoragarriaz gozatzea.

Hiriko gizarte eta kultur mugimenduetan parte hartu du aktiboki eta egun Madrilgo Euskal Etxeko Zuzendaritza Taldeko kidea da, Madrilen bizi diren euskaldunak beren herrialdetik hurbilago sentitu daitezen, euskararekin eta euskal kulturarekin lotutako lan desberdinak burutuz.